

Hernani Institutuko ikasleek Inglaterrako enpresetan egingo dituzte praktikak

■ Proiektua Europako erakundeetan aurkeztu dute ■ Datorren kurtsoan jarriko da martxan ■ Helburua: ikasleak Europako lan munduan sartu eta zailtzea.



Hernani Institutuko ikasle eta irakasleak elektrizitate klasean.

HERNANI Institutuak proiektu berria hasi du: ikasleak Ingalaterrara joatea praktikak egitera. Praktikak, berez, ez dira be-riak, orain ere egiten dira. Ikasleek urtean 350-600 praktika ordu egiten dituzte inguruko enpresetan. Datorren urtetik aurrera, zortzi ikasle Ingalaterrako enpresetan egingo dituzte praktika hauek.

EUROPAKO LAN MUNDUA EZAGUTU

Hernani Institutuaren proiektu berri honen helburu nagusia ikasleak Europako Komunitateko lan munduan sartzea da. "Jabetzen gara datozen ur-

teetan lan harremanak herrialde ezberdinetako langileen artekoak izango direla." Eta zentruak etorkizun horretarako prestatu nahi ditu ikasleak: beren espezialitateari buruz esperientzia hartu, beste herrialdeetan aktibitate industriala zein legedi, zein antolakuntza duen ulertu; eta gero, norbere herrikoarekin konparatu kurrikuluma aberasteko.

DERWNET TRAINING ASSOCIATION

Ingalaterrako entitate hau da Hernani Institutuak praktika hauek bideratzeko hartu duen sozioa. Zentruak preskaketak

egiteko bisita egingo du Malton herrira. *Derwnet Training Association*ek berriz, praktikak egiteko enpresak bilatuko ditu. Ikasleak han dauden bitartean, entitate honek, bere gain hartzen du haien egonaldia eta praktikak behar bezala jasotzea.

EBALUAKETA

Leonardo da Vinci programaren barruan ateratako proiektu honen ebaluaketa taldean egingo da: hango eta hemengo tutoreak, eta Institutuko kanpo harremanetarako taldearen artean. Emaitzak praktika buruarekin kontrastatuko dira. □

Inguruko Ehiza Txapelketa larunbatean

■ Hiru hernaniar aterako dira ■ Urnietan jokatu da.



Hernaniko ehiza txapelketako hiru lehenengoak

HERNANIKO Ehiza Txapelketa eta gero, inguruko jokatzeko da. Donostialde eta Berterriko herrietan aurrengo 3 postuetan gelditu diren artean jokatu da. Hernanitik Otaegi, Santakruz eta Garzia

izango dira txapel bila arituko direnak. Podiuma lortu bai, baina, txapelik ez da oraindik Hernanira etorri.

Txapelketa Besabitik gorako terrenoetan jokatu da, eguerditik arratsaldera arte. □

BATASUNA PROZESUA

Ponentzia nagusia aukeratzeko botazioa

■ Ezker Abertzalearen bide politikoa eta antolaketa bozkatuko dira ■ Gaur, Biterin 19:30etan.

ASTELEHENEKO Kronikan, aste honetan, Biterin, ezker abertzalearen geroa erabakitzeko aukera ezberdinak azalduko zirela jarri genuen. Ez zen zuzena, ponentziak dagoeneko jendearean azalduta baitaude, Hernanin.

BOST AUKERA

Gaur bozketak egingo da. Aukeran bost ponentzia: *Arragoa, Piztu, Bateginez, Aralar, eta Igitaia eta mailua*. Bozketak herriz herri egin arren, Euskal Herri mailan aukeratu da ponentzia nagusia. □

MENDIRIZ MENDI

Urkitara mendi buelta igandean, gaztetxoentzat

■ Prezioa: gaztetxoek 300 Pta eta helduek 600 Pta.

www.hkronika.com

**Kronika
Interneten**

HATOR
AHOLKULARITZA

Fiskala
Laborala
Kontablea
Administratiboa

HATOR
Aseguruak

Kardaberaz 60
Tel. 943. 55 43 12
20120 HERNANI



GALARRETA XXI-ALAI
FRONTOIA

Galarreta gaina z/g - HERNANI

Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera erremonte jaialdia:

- ⇒ 1. partidua **MATXIN III- REKLUSA / ZIGANDA- LANDER**
- ⇒ 2. partidua **Binakako txapelketa: ZEBERIO II-AUZMENDI / ALTUNA II-TXIKURI**
- ⇒ 3. partidua **EZKURRA- URRETABIZKAIA II / ALTUNA I- EIZAGIRRE**
- ⇒ 4. partidua **BITORIA - ZANDIO / KALONGE - J.ETXEBERRIA**

■ BOLA - GIPUZKOAKO ERREGULARITATE TXAPELKETA

Antonio Miner lider eta Migel Burugain bigarren, lehenengo tiraldian

■ 60 lagun -10 hernaniar- atera dira ■ Txapelketa Ereñotzun bukatuko da.



Herriko bolariak. Antonio Miner goian, ezkerretik laugarrena.

ALTZAN hasi da aurten bolako Erregularitate Txapelketa. Gipuzkoa osoko 60 bolari atera eta hernaniarrak jarri dira aurretik. Antonio Minerrek eta Migel Burugainek 48na *brila* bota zituzten, eta hirugarren batek ere bai. Desenpatea jokatu eta ereñotzuarrak irabazi zuen. Gauzak estu daude, ordea, atzetik datozenak ere brila bakar batera eta bira daudelako.

Txapelketa 11 igandetan jokatu da, beste hainbeste bolatokitik: igandean, Zerainen. Antoniok 96an ere irabazi zuen txapelketa hau. □

■ ERREMONTA

Lehen finalaurrekoa gaur Galarretan:

Zeberio II-Auzmendi / Altuna II-Txikuri

ERREMONTEN binakako txapelketa finalaurrekoetan da. Gaur, osteguna, Galarretako frontoian jokatu da lehen partida, arratsaldeko 16:00etan. Beste hiru partiduek osatuko dute jaialdia.

LARUNBATEAN 'EUSKAL'EN

Bi frontoietan jokatzeko ari dira txapelketa. Bigarren finala-

urrekoa larunbatean izango da Iruñako Euskalen: Ezkurra-Etxeberria Bitoria-Eizaguirren kontra neurtuko dira. Datorren astean, finalaurreko-etako bueltako partidua jokatu dira; Euskalen jokatu dutenek Galarretan eta Galarretan jokatu dutenek Euskalen. Partidu bana irabaziz gero hirugarren partidua joakatu dute. □



Ezkurra finalerdietan da Etxeberria gaztearekin.

ESKOLARTEAKO KIROLA

100 ume inguru, atletismo probetan

■ Lau ikastetxetako benjaminak aritu ziren ■ 4 proba egin zituzten



Umeak eta gurasoak Antziolako atletismo pistan.

ESKOLARTEKO kirolak atletismoa izan du protagonista asteburu honetan. Larunbatean lau ikastetxetako gaztetxoek Antziolako pistan ibili ziren.

Denera, lau probetan aritu ziren: luzera saltoa, 60 metro, pelota jaurtiketa eta 300 m.

EKITALDI BEREZIAK

Kirol Patronatuak dagoeneko lau ekitaldi antolatu ditu eskolarteko ohizko jardunetik kanpo: igeriketa, Karabelgo krossa, mugarriz festa... Helburua da normalean egiten ez dituzten kirol edo ekintzak egitea. Zuhaitz eguna, adibidez, aur-

ten larunbatean da eta ume guztiak zuhaitz aldatzera joango dira.

ALDAPETAK -3 LANGILEK -1

Asteburuan partidu hauxe bakarra jokatu da eta hernaniarrek galdu egin dute. □

■ HITZ BITAN

✓ ANOREXIA ETA BULIMIA

Nutrizionista, psikologoa eta Akabeko kidea asteleheneko bileran. Aurreko asteko bileraren harian, janak sortu litzazkeen gorabeheri buruzko hitzaldia izan zen Biterin. Denera, 50 lagun inguru joan ziren. Hitzaldian garbi gelditu zen elikadura dela gurasoen kezka. Yolanda Gonzalez psikologak anorexia eta bulimia antzemateko sintomak argitu zituen. Garbiñe Agirrek AKABEREN (Anorexia eta bulimia zaintzeko elkarte) bere babesa eskaini zien. Bestalde, Ongintzako Prebentzio sailak otsailean jardunaldi batzuk hasiko ditu zenbait gairen bueltan.

✓ HERRIKO XAKE TXAPELKETA

Ostiralean bukatuko da lehenengo sailkapen fasea. Antolakuntzatik hilaren 22an bukatuko zela zabaldu bazen ere, azkenean, bihar bertan bukatuko da. 40 lagunek (8 jokalariko 5 talde) jokatu dute fase hau Txema, Bodega, Kitto eta Aker tabernetan. 40tik 16 sailkatuko dira hurrengo fasera. Taldeetan egon litezkeen enpateak erabakitzeko desenpateak jokatu dira datorren astean. Gero, sailkapen fase berri bat hasiko da.

✓ GOBERNU BATZORDEA

10 puntuko gai ordena izan zuten atzoko bileran. Ibarluzeko poligonoan pabeloi bat haunditza, Pardiola Goiko baserrian teilatua berritzeko eskaera, Izpizua kalean, Gure Txokoa etxea, ruina zegoela-eta, udalak botatzea erabaki eta jabeak jarritako errekurtsioa, Kardaberaz 16an ganbara bat berritzeko eskaera... eta tankera bereko puntu saila izan zuten atzoko bilerak.

✓ ELUR-TXORIKO MUS TXAPELKETA

Gaur jokatu dira final laurdenak. Elur-Txori elkarteko mus txapelka ari da aurreratzen eta finalak berak ere badu eguna: otsailaren 1a. Gaur, osteguna, sei bikote eta lau banakako arituko dira. Gaur jokatu ezin dutenek bihar dute azken eguna jokatzeko. Bikote irabazleek urtarrilaren 30ean jokatu dute finalaurrekoa. 3-4garren postuak 31ean erabakiko dira.

GAURKO PARTIDUAK

BI BITARA	BURUZ BURU
Rafa-Xabi Peñagarikano-Quijera	I. Imaz / Ayerdi
Tomasena-Larrañaga P. Lopez-Iturriza	Tatxon / D. Karrera
Esna-Iturriza Lapazaran-Arozamena	
Zozketaz aurrerako: Zubilaga-Martinez	

AGENDA

❖ ERAKUSKETAK

Euskal Herriko aintzineko postalak
Ortzadar elkarteak.
Biteri Kultur Etxean
18:00etatik 20:00etara.

Olga Izquierdoren
Postalak

Txema tabernan.

Mari Sol Yabenenen
kuadroak
Ford Antziolan.

Vietnameko argazkiak
Zumardi jatetxean.

HERIOTZAK

Jose Maria Gabriel Hernandez
Astehenean hil zen 69 urte zituela

Esteban Iriarte Urrutia
Asteartean hil zen 53 urte zituela

IRRATIAK

(F.M. 99.2): 11:40etan: Nagore Irazustabarrena, Argia astekariari buruz. 12:00etan: Asteburuko kirolak, Rufinok 12:20etan: Mendi ibilaldia, Iñaki Zuzak.

IRRATSAIO BEREZIAK

Molotoff Irratiak Batasuna prozesuari buruz elkarrizketak egingo ditu ponentzia bakoitzeko ordezkariekin. Gaur, osteguna, 16:00etan: **Paxi Zabaleta** (Aralar); ostirala, 15:00etan, **Jose Antonio Egido** (Igitia eta mailua); 14:00etan, **Aurkene Astibia** (Bateginez); larunbata, 16:00etan, **Niko Elizondo** (Arragoa). Piztu ildokoa egina dute.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

►Eguzte: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943 553582
►Gaez: Rodriguez
Lasarte. Nagusia, 42
☎ 943 361774